

MUNDU**m**b

Eman hartu nahi duzun mundua

Mundumob Gipuzkoa zeharkatuko duen ekimena da. Herritarrak printzipio nagusi baten inguruan biltzea da Mundumoben helburua “Guztiok daukagu mundua aurreko belaunaldiek jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea, eta ondorioz, guztiok daukagu mundua hurrengo belaunaldiei jaso dugun aukera berdinekin uzteko bete beharra”. Iraunkortasunaren aldarrikapena da azken finean egingo duguna.

Ekimenean printzipioak finkatu nahi ditugu, herritarrek eta eragileek printzipio horiei atxikitzea nahi dugu, gero hortik abiatuta helburu eta ekintza zehatzak adostu eta gauzatzeko.

Mezuaren bektore nagusia herritarrek gorpuztuko duten kantu koreografiatu bat izango da. Kantua Karlos Jimenezek egin du, letra Jon Maiak jarri dio, ahotsa Xabier Rodil eta Ines Osinagak sartu dute eta koreografia gurekin lehendik lan egin izan duen Mikel Erguinek egin du.

Horrekin batera, eskutik eskura ibiliko dugu mundu bolak lagunduko digu ekimenean emango dugu mezua zabaltzen.

Orain arte egin dugun ekimenetan bezala, aldarrikatzen dugun baikortasuna eta konpromisoa egongo dira ekimenaren muinean. Aldarrikatzen dugun etorkizun hobeko horren isla izango da ekimena, giro alai parte hartzaile eta ludikoan burutuko duguna.

Ibilbideari dagokionez, Maiatzaren 4ean hasiko da Gipuzkoako herririk handienean, Orendainen. Ondo entzun duzue bai. Handitasuna ez da bakarrik m²tan edota biztanle kopuruaren arabera neurtzen. Guk, handitasuna, herritarren bihotzetan eta konpromisoan neurtzen dugu, eta horretan ez daukagu zalantzarik Orendainarrak eredu direla Gipuzkoan eta Euskal Herrian. Lehenengo Zero Zabor herria dugu. Hondakin organiko guztia herrian tratatzen dute ongarri bihurtuz. Ez dute beste herrietara organiko tona bakar bat usteltzera bidaltzen. Mundumoben hasiera Orendainen eginaz, guzti horren aitortza egin nahi dugu.

Bukaera ere Gipuzkoako herririk handienean egingo dugu. Oraingoan bai, biztanle kopuruari begira. Sortutako zabor kopuruari begira. Praktika on eta ereduak ezinbestean aplikatu behar diren lekua beraz, konponbidearen gako. Donostiak erronka polita jarri dio bere buruari. 2016 urtean Europako Kultur Hiriburu izatearena. Guk gure ekarpena egin nahi diogu izendapen horri. Kultura eta jakintza nekez egiten dute bat utzikeria eta zabarkeriarekin. Donostiari Zero Zabor norabidean jartzeko gure ekarpena egingo diogu amaiera han emanda.



Maiatzak 4 ORENDAIN



ZERO ZABOR

DONOSTIA Ekainak 8